

Malakologia

MALAKOLOGO EGINAK DAUDE nekazariak Euskal Herria hezean. Soinberei edo moluskuei nondik nora gaina hartu ikertzen eta saiatzan belauenez belauen sortutako jakintza da malakologia. Barraskiloak eta bareak dira nekazarien molusku ezagunenak. A zer pare! Barraskiloa eta barea. Hezetasuna gustuko eta gauzez lan egiten duen pare. Hotzak eta lehorreak izorratzen dituztenez horien sasoieta babesa topatu behar dute. Hibernazioan eta estibazioan iaioak dira. Lurpean edo aterpean sartuko dira. Teilatupeko pare.

Barraskiloen eta bareen kalte ikusgarrienak landare txikietakoak dira, jo eta erabat jan ditzakete. Kalte horiek baretzeko, pozo kimikoaz gain bide ugari bada. Teila da onena. Landare artean teilak jarri, bizkarrez gora, itzala eskainiz. Beraiek bilduko dira bertara. Handik zeuk bildu. Teilape hori erakargarriago egiteko gustuko duten gutuziaren bat jar dakieke: laranja-azala, limoi-azala, patata-azala... Gutuzia horien pareko da parearentzat garagardoa. Ontzi bat garagardoz ia beteta lurpean sartu eta ahoa lurrazalaren parean, barraskilo eta bare garagardotara plasta, eta bertan ito. Garagardoa euritan urtu ez dadin, eta ontzia aho ertzeraino bete ez dadin, hori ere teilaz estaliko dugu. Tartean animalistaren bat baldin badugu, eta molusku horiek hiltzeari gaizki baderitzo, garagardoa ontzi batean jarri beharrean, garagardoz blaitutako trapu bat




WOODLOUSE-CC BY SA

jarri. Berdin etorriko dira, baina hartu eta auzokoaren landareetara bota... Animalistek gustuko ez dituzten etxeko oilo, ahate, antzar eta abar molusku chiztari eta jale amorratuak ere badira. Txoko heze eta ospeletan moluskuen arrautzak ere bilatu, aurkitu eta jango dituzte. Guk egin dezakegu arrautza bilketa hori, baina bi hankako horiek gure aldean erraz egingo dute. Bi hankako molusku-jale horien arrautzak bai guk bildu ditzakegu eta jan ahala azalak jaso. Azal horiek txikitu eta landare aldatu berrien artean zabaldu. Azal puska zorrotzen gainean ibiltzea ez dute gustuko eta moluskuak urrutiratu egingo dira. Horren

lan bera egiten du errautsak, gainean ibili ezinik atzera egingo dute. Bustita trinkotu egiten denez, euria denero errauts geruza berritu. Gatza ere atsegin omen dute, baina gehiegian urgabetu eta hilko ditu. Lurra gazitzea ere ez da ona, eta zenbaitek ogi mamiz egindako pilotatxoak gazitzen dituzte. Baratzuriaren estraktua edo ura ere ona da, izan ere nor ez du baratxuri kiratsak uxatzen? Eta besterik ez bada, ilunabarrean hartu eskuargia edo kriseilua eta hasi bila. Bildu eta jateko jaso. Bildu eta auzokoaren baratxera bidali. Bildu eta zuzenean akabatu. ■



Babeslea: **ALKARTASUNA, Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba**

**ALKARTASUNA**
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Erosi gure produktuak online

T 943 361 114 · alkartasuna@usurbil.com · www.alkartasunausurbil.com

